

JARDUERAK / ACTIVIDADES

FAMILIENTZAKO TAILERRAK / TALLERES FAMILIARES

Azaroak 23 eta 30, abenduak 14 eta urtarrilak 25 / 23 y 30 de noviembre, 14 de diciembre y 25 de enero

Kiputz Animalia Tranpa, Cova Orgaz

Artista tailerra, familientzako / Taller de artista para familias

Kiputz historiaurreko amildegia izan zen, animalia askoren tranpa. Bertan aurkitutako animalien gazezurra berregingo dugu Cova Orgaz eskultorearen laguntzaz.

Kiputz fue un abismo en la prehistoria, una trampa para muchos animales. Viajaremos a la prehistoria y y reconstruiremos el cráneo de alguno de estos animales con la ayuda de la escultora Cova Orgaz.
17:00 / 6-12 / Elebitan / Bilingüe / 5 € familia

BISITAK / VISITAS

Zeharkako begiradak / En primera persona

Erakusketaren komisarioek bisita gidatu berezi hauek egingo dituzte. / Los comisarios de la exposición ofrecerán estas visitas especiales.

Abenduak 12 / 12 de diciembre: Pedro Castaños. Cast.

Urtarrilak 16 / 16 de enero: Xabier Murelaga. Eusk.

18:00 / Dohainik, erreserbarekin - Gratuitas, con reserva:
stm_erreserbak@donostia.eus, 943-481561 (12:00-14:00).

Hezkuntza / Educación

Bisita-tailerrak LH eta DBHrako. Informazio eta erreserbak:
astelehenetik ostiralera, stm_erreserbak@donostia.eus edo
943 48 15 61 (12:00-14:00).

Visitas-taller para EP y ESO. Información y reservas: de lunes a viernes, stm_erreserbak@donostia.eus o 943 48 15 61 (12:00-14:00).

ORDUTEGIA HORARIO

Asteartetik igandera: 10:00 - 20:00 |
Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik.
De martes a domingo: 10:00 - 20:00 |
Lunes cerrado, festivos abierto.

PREZIOAK TARIFAS

SARRERA OROKORRA / ENTRADA
GENERAL 6€
MURRIZTUA / REDUCIDA 3€
ASTEARTEETAN DOHAINIK
LOS MARTES, ACCESO GRATUITO

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia | Tlf.: 943-481580

www.santelmomuseoa.eus | santelmo@donostia.eus | @santelmomuseoa



Museoaren patrono pribatuak / Patronos privados del museo



KIPUTZ

AMILDEGIA
HISTORIAURREAN

UN ABISMO
EN LA PREHISTORIA

ERAKUSKETA
EXPOSICIÓN
SAN TELMO MUSEOA

2019/11/16
2020/02/09

Azken glaziazioan (orain dela 110 000-10 000 urte), Kantauri itsasoko ertza estepa zen, gaur egun gure mendietan inondik inora ikusterik ez dugun hainbat animalien bazkalekua: elur-oreinak, errinozero iletsuak, estepako bisonteak edo mamutak, izaki itzelak guztiak, gizakiekin batera bizi izan baziren ere klima epeldu ahala desagertu zirenak.

Baina nola jakin dugu animalia horiek gure lurraldean bizi izan zirela? Denboran kontserbatu diren hezurrek argi pixka bat ematen digute azken negu handian izan zen klimaren eta biodibertsitatearen inguruan.

Garai hartan itsasoa 18 kilometro urrunago zegoen egungo kostaldeko lerrotik, eta egungo itsas plataforma kontinentalean estepa zegoen, sarri guttiz elurtuta eta landare urriekin egoten zena, Artikoko herrialdeen antzera.

Kiputz IX (Mutriku, Gipuzkoa) amildegian milaka urtetan gorde dira Iberiar Penintsulako elur-oreinen, bisonteen eta oreinen hondarrak, gehienak orain 20 000 urtekoak, gutxi gorabehera. Gizakiak ez ziren inoiz leizean bizi izan, tranpa natural bat zen, eta eskarmenturik gabeko hainbat animalia gaztek bertan izan zuten zorigaitzoko amaiera.

Kiputz IX aztarnategian aurkitutako pieza bereziena estepako bisonte baten (*Bison priscus*) burezur ia oso bat da, Iberiar Penintsulan bakarra eta Europako mendebaldean espezie horretatik ondoen kontserbatutako aleen artean dagoena.

Bisontea, gutxi gorabehera 900 kiloko pisua eta metro batetik gorako adar-luzera zeuzkana, leizera erori zen, eta litekeena da janik ezaren eraginez hil izana.

Altamirako frisoaren erreproduzioak, bestalde, bisonte bat gorri-beltzean irudikatzen duena, desagertutako unibertso natural baten isla dakarkigu.



Kiputz IX aztarnategian berreskuratutako bisontearen burezura. / Cráneo del bisonte recuperado en el yacimiento de Kiputz IX. Arg. / Foto.: Aranzadi Zientzia Elkarte.

Durante la última glaciación (110 000-10 000 años antes del presente), la cornisa cantábrica era una estepa donde pastaban animales imposibles de encontrar hoy en día en nuestras montañas: renos, rinocerontes lanudos, bisontes esteparios, mamuts... gigantes criaturas que coexistieron con el ser humano pero que fueron desapareciendo a medida que el clima se templaba.

Pero, ¿cómo sabemos que estos animales habitaron nuestro territorio? Los huesos preservados en el tiempo nos dan pistas del clima y la biodiversidad del último gran invierno.

Por aquel entonces, el mar se encontraba unos 18 kilómetros más alejado de la línea de costa actual, y lo que hoy es la plataforma marítima continental era una zona esteparia, a menudo cubierta de nieve y con una vegetación escasa, similar a la de países de latitudes árticas.

El abismo de Kiputz IX (Mutriku, Gipuzkoa) ha conservado durante milenios restos de renos, ciervos y bisontes de la Península Ibérica, la mayoría de ellos de hace unos 20 000 años. La sima nunca fue habitada por el ser humano, era una trampa natural donde animales jóvenes e inexpertos encontraron su final.

La pieza más singular hallada en Kiputz IX es un cráneo prácticamente completo de bisonte estepario (*Bison priscus*), único en toda la Península Ibérica y que se encuentra entre los ejemplares mejor conservados de esta especie en el Occidente de Europa.

El bisonte, un macho adulto de unos 900 kilos de peso, con una cornamenta que sobrepasaba el metro de envergadura entre ambos pitones, cayó a la sima y probablemente murió de inanición.

La reproducción del friso de Altamira en la que se representa un imponente bisonte, en rojo y negro, constituye asimismo el reflejo de un universo natural ya desaparecido.



Museo de Altamira. Argazkia / Foto: P. Saura.